

Xabier Letona



DANI BLANCO

Barregura, kezka eta amorrua

ARRASTAKA bada ere, legealdi amaierara iristeko bereak eta bi egingo ditu Yolanda Barcina Nafarroako Gobernuko lehendakariak. Egoera ez da erraza, baina legealdi hasieratik gaur arte bota duenarekin eutsi badio, badira arrazoi asko pentsatzeko hala izango dela. PSNk du giltza eta, egia esan, gaur egun Barcinak baino beldur handiagoa diete Jimenezek eta bere jarraitzaileek hautesontzietan.

Eskuin espainiar zalea, ordea, narrasean baino erasoan dago ohituago Nafarroan, aurkaria fisikoki desagerraraziz, 36ko Gerran moduan, edo Nafarroa espainiarrekin bat egiten ez duen ikuspegi ETArekin parekatuz, oraintsu Guardia Zibilak D ereduaren txostenarekin egin duen legez.

Hemen txostenaren laburpena ezer ez dakienarentzat. ETAk eta bere ingurukoek aspaldi erabaki zuten Nafarroaren konkistari hezkuntzatik ekingo ziotela. Orain D ereduaren baliatzen ari dira horretarako, eta “ezker bertzaleak” dagoeneko lortu du infiltratzea irakasleen %26,7. D ereduaren eskaintzen duten 155 zentroetatik 28 aztertu ditu Guardia Zibilak –ezker abertzaleak boto gehien eskuratzen duen eremuetakoa– eta hortik ondorioztatu du 1.652 irakasletik 441ek “ezker abertzalearekin” harreman zuzena dutela.

Ez da fikzioa, Guardia Zibilaren txostena baizik. Gehiago ere bada, *El Mundo*-k iragan igandean argitaratu zuenaren arabera, Iruñeko Amaiur Ikastola eta Iturramakoa Institutua ETArekin kabi dira eta azken zentro honetako arduradunak ezker abertzaleari lotuak daude.

Eta bati irribarrea eta kezka nahasten zaizkio barrenean. Irri-

barrea, absurdoa delako, Espainia Nafarroan zein baldar ari den eta eskuin nabarrista etorkizunarekin eta datorren hauteskunde sasoiarekin zein kezkatua dagoen erakusten duelako. Lehen buelta 2014ko maiatzean izango da, Europako Legebiltzarreko hauteskundeekin eta bigarrena 2015eko udaberrian udal eta Nafarroako Gobernuko hauteskundeekin.

Baina kezka ere bada, ez nolana hikoia gainera, eta kezkaekin amorrua, euskal herritar askok larrutik ordaindu dituelako Guardia Zibilaren hau bezalako txosten barregarri eta absurduak. Eta ez da iragana, aste hauetako Madrilgo makroprozesuak dira adibide gordin eta bizi-biziak.

Kezka Nafarroako herritar askorentzat Guardia Zibilaren erranak egia direlako, beste askoren artean zalantza zabaltzen duelako eta beste batzuk, sinetsi ez baina albistea irakurrita “badaezpada” D ereduaren ez matrikulatzeko jarrera har dezaketelako, eta batzuk hartzen dutelako. Eta kezka, honek guztiak legedian aldaketak eragiteko balio dezakeelako.

KATEATUA dago dena. Barcina lehendakariak argi esan zien iragan igandean UPNren egunean bere jarraitzaileei: “UPNk ez du utziko Batasunak Nafarroa desagerraraz dezan”. Eta Carlos Salvador UPNko diputatuak Espainiako Kongresuan eskatuko du legeak alda daitezkeen pederastia, xenofobia eta terrorismo delituengatik zigortuak izan direnak ezin daitezkeen irakasleak izan. Eta eskatu du Espainiako Kongresuan Jorge Fernández Díez Barne Ministroak azaldu dezan Guardia Zibilaren txostena. Baina bitxia bada ere, UPNk ez du gauza bera eskatu

Nafarroako Legebiltzarrean eta hor oposizioak eskatu du UPNren agerpena, Guardia Zibilaren txostenaz zer duen esateko ager dezan eta D ereduko irakasleei Legebiltzarrearen sostengu osoa agertzeko. Eta hala egin du Legebiltzarrek, UPN eta PPren aurkako botoekin, Guardia Zibilak adoktrinamenduarekin lotzen duen euskal adar horri sostengu osoa eskaini.

TESTUINGURU honetan askoz hobeto ulertzen da zergatik Nafarroako Gobernuak ez duen ETBren seinale analogikorik nahi Nafarroan, nahiz eta Barcinaren botoemaile ugari ere eskertuko lukeen, batez ere hainbat pilota edo futbol partidu jarraitzeko. Horregatik, duela hiru urteko itzalaldi digitala eman zenean, Nafarroako Gobernuak argudiatu zuen ez zuela txintik ere ordainduko ETB ikusteko Nafarroan –milioi bat euro ei zen–, hori Eusko Jaurlaritzari zegokiola, honek hala nahi izanez gero.

Bagenekien ez zela hori baina EAK erakutsi zuen dirua ez zela arazo, Erreniegako antenetan behar adinako ukitu teknikoak egin eta erraz lor zitekeela seinale digitala. 45.000 euroko isuna ezarri zion Espainiako Gobernuak.

Lehenago mapak ziren, geroago dirua edo Eusko Jaurlaritzaren begirune instituzional eskasa eta orain, Mariano Rajoyk Aitor Esteban jeltzaleari gogorarazi dion legez, berak ez du arazorik, baina Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren artean akordioa lortu behar dute.

Ez da broma, las-ter aterako da Guardia Zibilaren txostena EiTbren arriskuak aireratuz. ■

